HYPODERMA BOVIS-GATIKO MIASI KASU BAT

LANDA, N.; CALDERON, M.J.; GOICOECHEA, M.A.;
GARDEAZABAL, J.; GONZALEZ, M.; DIAZ, J.L.

Dermatologiako Zerbitzua.
Gurutzetako Ospitalea.

Bederatzi urteko neska bat aurkezten dugu urtebeteko azaleko larruazaleko lesio historiarekin. Lesio subkutaneo nodularrak, mingarriak eta migratorioak ziren, eta bakoitzak 10-15 egun irauten zuen, berez desagertzeko. Hanketan, besoetan edo buruan irten zitezkeen. Neskaren sendian filariasi kasuak aurkitu ziren historiaz. Eskapulako nodulu batetik hartutako biopsiak fistula bat eta parasito batekiko erreakzio inespezifiko bat azaldu zuen. Batzuetan, parasito baten gorputz-zatiak ebakita ikus ahal zitezkeen. Analitikan eosinofilia garrantsitzu bat aurkitu zen (% 19), esplorazio generala normala izanik. Nodulu bat estutu ondoren, larba bat bizirik irten zen eta laborategian *Hypoderma bovis* euliaren generokoa bezala tipatu zen.

Miasia dipteroenpatiko gizonen eta abereen kutsatzea bezala ulertzen da. Ultzerazio, tumore edo zaurien gainean ipintzen dira arrautzak, batez ere zikintasun haundiko inguruetan.

*Hypoderma bovis*gatiko parasitazioa oso apartekoa da gure inguruan. Beste miasien larbak arrautzak ipintzen diren leku berean hazten dira. *Hypoderma bovis*en berezitasuna lesio inflamatorioak inokulaziotik urrun sortzea da eta honela, larbak gorputz barnean aurkitu daitezke.

TUNGA PENETRANS-AREN KUTSATZEA

ARREGUI, M.A.; EIZAGUIRRE, X.; RATON, J.A.;
GIL, N.; AGUIRRE, A.; DIAZ, J.L.
Dermatologiako Zerbitzua. Gurutzetako. Ospitalea.

Tunga penetrans edo pankrearen arkakusoa delakoa, lur hareatsutan bizi da, batez ere tropiko aldean ugaria izanik. Emea ernalduta dagoenean, abereen beheko ataletan sartzen da, eta gizakietan oinak izaten dira gehienetan kutsatzen direnak, modu honetan agertzen delarik; zauri papuloso edo nodular zuriska baten antzekoa, erdian puntu beltz batekin (arkakusoaren atzekaldeari dagokiona). Tungiasiaren diagnostikoa histologikoa eta mikrobiologikoa da. Prebenitu daiteke oinetakoen eta insektizidaren erabileraz.

27 urtetako gizon osasuntsua eta Ertafrikako hainbat herritan zehar ibili zena aurkezten dugu. Zairen, eskumako oineko alboan, zauri txiki eta mingarri bat zuela konturatu zen. Hilabete geroago gure kontsultara etorri zen, zauri mingarri eta lesio zuriska baten antzekoarekin, erdian punto beltz bat agertuz. Ebaketaren ondorioz arraultza taldeak agertu ziren. Zauriaren erauzketa sinpleak ikasketa anatomopatologikoa ahalbidetu zuen, arkakusoaren eta batez ere arraultzen egiturak argi ikusieraziz.

Lesioaren erauzketaz sendamena lortu zen.

Tropiko aldera bidaiak sarritan egiten direnez, mota horretako gaixotasunak kontutan hartu behar dira gure ingurugiroan.